

Asteazkena, 2013ko azaroak 6 - 11:02
**Plaza**
bilatu...

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)

[Paperekoa](#)
[PDFn](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | **Plaza**

---

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2013-11-05  
KRITIKA. ANTZERKIA

## Hamlet gaurko erara

**AGUS PEREZ**  
**'Hamlet'**

**Idazlea:** William Shakespeare.

**Adaptazioa:** Xabier Mendiguren Elizegi.

**Zuzendaritza:** Ximun Fuchs.

**Aktoreak:** Ander Lipus, Ainara Gurrutxaga, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu, Urko Redondo.

**Lekua:** Bilboko Arriaga antzokia.

**Eguna:** Azaroak 3.

Luhuson estreinatu ostean eta Azpeitiko Antzerki Jardunaldietatik igarota, Bilboko Arriaga antzokia etorri da *Hamlet*-en lehendabiziko eszenaratze euskalduna. Erroka handia zen, inondik inora, baina aretoa ondo bete da eta astebetean bigarrenaz frogatu da —aurrekoa *Gabrielen lekua* izan zen— Bilbon badela ikusleria nahikoa euskaraz eta kalitatez Arriaga betetzeko.

*Errautsak* mitiko hartan bezala, hiru konpainia berritzaile —Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain— arduratu dira ekoizpenaz, elkarlanean eta orduan hasitako bide emankorrari jarraipena emanaz. Baina, orduan ez bezala, klasiko nagusi batean oinarritu dira orain, eta Xabier Mendiguren Elizegi arduratu da testua moldatzeaz, antzezleekin izandako kolaborazio estuan, suposatzeak denez.

Hala ere, Danimarkako printzearen gorabeherak Euskal Herrira eta XXI. mendera ekartzean askatasun erabatekoa baliatu dute talde sortzaileko kideek, eta ikusleak ez du espero behar XVII. mendeko testuaren transkripzio literalik, are gutxiago arestian aipaturiko lanen ezaugarriak ikusita. Bide horretatik, jatorrizko pasarte batzuen artean beste gauza asko gertatu dira emanaldian zehar eta, oso zentzu zabalean hartuta, ulertu ahal dugu Hamleten garaiak ere nahasiak izan zirela. Hortaz, garai haien moduko anabasa batean murgildu gaituzte antzezlaneko pertsonaiek, gaurko gizartearen kontuak ikuspegi dramatikoak agerraraziz eta gizaki apalen arazoak umore finarekin zipzitzinduz.

Ximun Fuchs-en dramaturgia konplexuan indar handikoak izan dira arketipoak, eta aktore guztiek gaitasun handiz gorpuztu dituzte egokitu zaizkien rolak, baina protagonismo hutsaletik irmo ihes eginez, eta alde horretatik eredugarritzat jo dezakegu *To be or not to be* bakarriketari emandako tratamendu integratua. Era berean, laguntza handikoak izan dira argiztapen apal baina sormentsua eta antzezleen bat-bateko karakterizazioa, ekintza laburren segida dinamikoa gauzatzerakoan.

Bestetik, hainbat plano kontrajarritan garatu dira eszenak —oraina eta iragana, gertakariak eta hedabideen bertsioa, errealitatea eta irudimena— jatorrizko obrarekin beste paralelismo bat ezarri. Une batean, esate baterako, zuriz jantzita eta ezpata eskuan zuela agertu zaigu Ofelia, oraino aita gaixoarekin hitz eginez, eta azken pasartean kontraste esanguratsua sortu dute irrati bateko solaskideen ahotsek eta Tadeusz Kantorren estiloko antzezleek, trapuzko pertsonaien amaiera tragikoa gauzatzen zen bitartean.



**Albisterik...**

IRAKURRIENAK
Bozkatuenak
Bidalienak

- 1 Erkoreka: "Ezin da Europako Lehia Legea urratu enpresa pribatuei diru laguntzak emanez"
- 2 Kanporaketei buruzko mahai ingurua gaur 18:00etan, BERRIA.INFOn
- 3 Alstom taldeak iragarri du 1.300 lanpostu kenduko dituela
- 4 Banakako arazoa ez, gizartearena
- 5 Wertek atzera egin du, eta Erasmuseko laguntza bermatuko die aurten ikasleei

---

[Hasiera](#)
[Euskal Herria](#)
[Ekonomia](#)
[Mundua](#)
[Kirola](#)
[Kultura](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Paperekoa](#)

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.  
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefona: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172  
berria@berria.info - www.berria.info  
Lege Informazioa









